

# Prensa oharra

## Nota de prensa



## **128 LANGILEKO DISPOSITIBO BATEK HIRIA GARBİ MANTENDUKO DU ASTE NAGUSIAN**

Aste Nagusia dela eta, garbiketa-zerbitzuak eta zabor-bilketako zerbitzuak indartu egingo dira. Hala, Donostiako Garbiketa ABEEak ohiko zerbitzuak berrantolatzea erabaki du, hiriko garbiketa-lanak indartzeko, batez ere jende gehien erregistratzen den jai-esparruetan.

«Ahalegin handia da, hiria garbi mantentzeko», adierazi du Carlos García Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotziak. «Aste Nagusian hiria jendez betetzen da, eta horrek eragina du gure kaleen garbitasunean. Dantzaldietan, kontzertuetan, feria-esparruetan edo su artifizialetan jendetza pilatzeak hondakin kopuru handia sortzen du, eta, iaz bakarrik, 140 tona hondakin bildu ziren. Hiria garbi mantentzeko ahalegina izugarria da, eta beharrezkoa da herritarren kontzientziarioa eta lankidetzak, Donostia ahalik eta baldintza onenetan mantentzeko», adierazi du.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Hiriak ohiko dispositiboa du izango du auzo guztietan, eta Aste Nagusia dela-eta, bereziki garbiketa espezifikoa egingo da eremu hauetan:

- a) Erdialdea eta Alde Zaharra
- b) Pasealeku Berria, Aldamar eta Zubieta
- c) San Martin – San Bartolome
- d) Kursaal – Zurriola
- e) Donostiako kaia
- f) su artifizialak jaurtitzeko eremua
- g) garbiketa-zerbitzuen errefortzua arratsaldeetan

Dispositibo berezi horretan 128 langilek parte hartzen dute, eta horien artean daude kamioi-gidariak eta garbiketarako erabiltzen den makineriaren gidariak, peoiak eta zerbitzu berezietako langileak. Hiru txanda egongo dira, goizez, arratsaldez eta gauez.

Gainera, mota guztietako 56 ibilgailu erabiliko dira garbiketarako:

- espaloiak eta galtzadak erraztatzeko 17 makina
- 16 ibilgailu arin
- 16 m<sup>3</sup>-ko 9 zisterna-kamioi
- espaloiak urez garbitzeko 6 ibilgailu
- 3 hondakin-bilgailu
- 2 AmpliRoll kamioi
- urez garbitzeko 2 furgoi
- 8 m<sup>3</sup>-ko zisterna-kamioi 1

Azken urteotan egin ohi izan den bezala, bai aurreko egun hauetan, bai Aste Nagusian bertan, usaina kentzeko substantzia bat aplikatzen da hainbat gunetan, hala nola kaiko harresian, Portaletan, Alde Zaharrean, eta abar, jendeak kalean pixa egiteko duen ohitura zabarragatik usainak saihesteko.